

Zoaz ostrazismora... edo petalismora

KERAMIKOS MUSEUM



Aristides, Lisimakoren semea, erbestera bidaltzeko erabilitako bozka. Aristides "Zuzena" K.a. 482an bidali zuten ostrazismora, nekazarien aldeko eta itsas flotaren aurkako gatazka sozialetan parte hartzeagatik, baina hamar urteko zigorra bete baino lehen itzultzeko aukera eman zioten.

ATENAS, K.a. 510. Klistenesek ostrazismoaren legea sortu zuen, arriskutsutzat jotzen zituzten politikariak erbesteratzen, indarrean urte batzuk geroago jarri zen arren, K.a. 487an. Greziar demokrazia ahuldu zezaketen balizko intrigak eta azpi-jokoak saihesteko prebenzio neurria zen jatorriz.

Atenasko hiritarrak urtero biltzen ziren ordezkaritza politikoren bat hiritik egotzi behar zuten ala ez erabakitzen. Gehiengo absolutuz onartzen bazen, kanporatuak hamar egun zeuzkan ekipajea egin eta Atenasetik alde egiteko. Hiritarra izateagatik zeuzkan eskubideak ez zituen galtzen –hiria zapaltzeko eskubidea salbu– eta hamar urteko erbestealdiaren ondoren itzultzeko aukera zuen.

Lehen kondenatua Hiparko izan zen, eta azkena Hiperbolo, K.a. 417an. Tartean Megakles V.a, Jantipo –Periklesen aita– eta Aristides erbestera zituzten, besteak beste. Beraz, ostrazismoak mendea ere ez zuen bete. Izan ere, demokrazia defendatzeko xedez sortu zutena kontrako arrisku bihurtu zen. Aurkari politiko deserosoak uxatzeko edo, besterik gabe, pagaburuak topatzeko bide erraz gisa erabiltzen hasi ziren.

Praktikak ez zuen iraun, baina kontzeptua guganaino iritsi da. Hiztegiaren arabera, ostrazismo hitzak "pertsone-

na desatseginak bazter uztea" esan nahi du. Hitza antzinako grekozko *ostrakonetik* dator. Idazteko erabiltzen zituzten maskor edo zeramikazko zatiak ziren ostrakak. Pitxarrak hausten zirenean, zatiak ohar eta datuak idazteko edo idazketa praktikatu ahal izateko birziklatzeko ohitura ona zuten. Eta hiritik kanporatu nahi zituztenen izenak idazteko ere ostrakak erabiltzen zituzten.

Baina kontzeptua *petalismoa* izan zitekeen berdina. Beste greziar hiri batzuetan, Peloponeson bertan nahiz penintsulatik kanpo, zuzaitzen hostoetan –grekoz *petalon*– idazten zuten epaituaren izena. Sirakusan, esaterako, olibondo hostoak erabiltzen zituzten. Bozaren euskarria ez zein hain gogorra, eta zigorra ere ez: erbestealdia bost urtekoa izan ohi zen Siziliako hiri horretan. Ostraketan idaztea zailagoa zen; ikerketa arkeologikoei frogatu dute ostraka asko esku gutxi idatzita daudela, gaur bezala, boto txartelak aurrez "inprimatuta" izaten zituztela, alegia.

Gaiean idaztea errazagoa izanagatik, hostoak gal-korrangoak dira, eta horregatik petalismoaren arrasto fisikorik ez zaigu iritsi. Eta hitzak berak ez du ostrazismoaren indarririk. Egia esan, norbait petalismoa bidaltzeko kutsu positiboa du ia. ■

Arrastoak

Bikingoak eta musulmanak eraztunaz lotuta

CHRISTER ÅHLIN



"IL-LA-LAH" (Alarentzat edo Alarengatik) idazkuna duen eraztun bat topatu zuten XIX. mendearen amaieran Suedian, bikingoen garaietan merkataritza gune garrantzitsua izandako Birkan. Eta, berriki, Stockholmeko Unibertsitateko Sebastian Wärmländer biofisikariak pieza xehe aztertu du. Eratzuna oso gutxi erabili zutela ondorioztatu du, jabe gutxi edo bakarra

izan zuela. Beraz, eraztun musulmana ez zen halabarrez iritsi Eskandinaviara. Bikingoen saga eta kronikek aipatzen dute bikingoak, Kaspiar Itsasora, Itsaso Beltzera eta haratago joan zirela, baina zaila da istorio horietan errealitatea eta fikzioa bereiztea. Wärmländerren esanetan, "eratzunak bikingoen eta islamdar munduaren arteko harremana baieztatzen du". ■